

# Piarres Andiazabalen hilberri txostena (1923-2020)

ARBELBIDE, Xipri  
Ohorezko euskaltzaina

Piarres Andiazabal Urruñan sortu zen duela 97 urte. 1947an, apeztu eta Hazparnerat joan zen, Elizako eskolan errient, apezak tole baitziren garai haietan. Hortik Uztaritzeko seminariorat 1953an, irakasle. Han biziko zen 26 urtez Piarres Lafitte eta Etienne Salaberri idazle ezagunekin. Seminario handirat igorri zuten, kontulari 1979an. 1994an Katedraleko kalonjeetan sartu zen. 1998an Apezpikutegiko astekariko zuzendari. Apez xaharren etxerat joan zen 2015ean. Hori bizi ofiziala, baina hezur idor horien inguruan nolako giharra!

1939-1945eko gerlatik landa hasi zen Elizaren iraultza. Ordukoak dira lanerat joan ziren apezak: horietan, Iparraldeko 33. Ordukoa ere gure herri guziak hunki zituen iraultzaren beste alde hau: liturgia euskaraz izatea eta ez dena latinez ordu arte bezala. Hor du Piarresek egin gaitzeko lana, inguruan zeukan apez multxoarekin. Liburu guzien itzulpena behar zen, eta, horretarako, itzultzaileak. Hamar urteren lana izan zuten. 2.300 orrialde irakurgaitan beretan. Beste 800 bat aldareko liburuan.

Bi talde izan ziren lanaren egiteko. Bat Beloken, Martzel Etxehandi eta Iratzedarren inguruko fraideekin. Artetik errateko Martzeli zor diogu bestalde Biblia osoaren itzulpena. Bigarren taldea Andiazabal eta Lafitten inguruan Uztaritzen biltzen ziren diozesako apez batzuk. Astelehen guzietan denak elkarretaratzen ziren Beloken, bakoitzak bere alde egin lana denen artean orraztatzen. Bilkurak hasi ziren 1964ko apirilaren 6an. Hegoaldean ez zen oraino itzultzaile komisio bihirik.

Bezperak euskaraz kantatzen hasiak ziren Mugerreko elizan 1963an, Iratzederrekin kantatzeko moldean antolatu salmoekin, Gabriel Lertxundiren aireetan. Gero, herri guzietan bide bera hartu zuten jendeek, apuñatik ematen zituztela. Oraino ere ikusten dira gure elizetan *Igandetako bezperak* liburuxka gorriak, ez baitute deus

ikustekorik garai haietako beste liburu gorri famatu batekin. Mezarentzat, bezperentzat ez bezalako lana izanen zen.

Belokek sortua baitzuen *Othoizlari* aldizkaria, fraideen adiskideentzat, Elizaren aro berria eta liturgiaren itzulpenen zerbitzuko eman zuten. Aldizkari honen gehigarri bezala agertu ziren itzulpenen liburuxkak, bata bestearen ondotik. 796 orrialde orotara. Lehena 1964ko Mendekosterako plazaratu zen eta orduan hasi ginen irakurgaiak euskaraz ematen.

Gipuzkoan, Bizkaian, bai eta Venezuelan ere beren itzulpenak egin zituzten, ahortzi gabe Xiberoa. Bost itzulpen euskararentzat! Lana bururatu eta Vatikanotik jin zen manua, mintzaira bakoitzak itzulpen bakar bat baizik ez zuela behar, ñabardura zenbait gorabehera. Dena berriz haste! Oraingoan Hegoaldearekin. Andiazabal izan zen bilkuretan Iparraldearen izenean. Eta, prest izan ginen... Frantzia handia baino lehen!!!

2008an atera zuen Piarresen 540 bat orrialde dauzkan irakurgaien edizio berri eder bat (21x30 cm), testuei han-hemenka hobekuntza zenbait ekarriz, frantseseko edozein libururi ez baitio zorrik. Hori, irakurgaiei doakienaz. Mezaren aldi geroxeago.

Hasi ziren beraz Hegoaldeko eta Iparraldekoen bilkurak. Lehenak Ibardinen egin ziren, Urretxun gero, eta azkenik Donostian. Irakurgaientzat batasun laxo bat izan bazen, gaineratikoentzat ala Hegoaldean ala Iparraldean, kasik itzulpen berak ditugu. Gure Aita, osoki berdina. Eta hori, Euskaltzaindia euskara batuaz mintzatzen hasia baizik ez zelarik.

Andiazabali zor diogu ere nik dakita zenbat dozena mila aletan zabaldua, eliza guzietan ikus daitekeen *Igandetan Elizan* liburuxka (192 or.) mezako otoitz eta kantuekin. Edizio berri bat atera zuen duela 15 bat urte *Kanta Jaunari herriz herri* euskarazko 350 kantikarekin bai eta frantseseko beste 180 batekin, frantximentei tokia eman behar baitzaie Euskal Herri barnean, ordainik gabe hirialdeko euskaldunentzat.

Andiazabal ez zen horretan gelditu. Sei liburu atera zituen (biga urte bakoitz) *Igandetako salmo leloak*, lehena irakurgaietarik landako salmoekin, oraino ere baliatzen duguna. Bigarrena, *Mezetako Deiak*.

Irakurgaiek irakurleak behar zituzten. Horra beste iraultza bat! Ordu arte jendeek beren tokian egoten ziren xintxo-xintxo, eta hona non apeza zen isildu, laiko bat mintzo zela denen aitzinean. Kuraia behar zen aitzin hartan agertzeko! Ikusi ditugu irakurtzen, zangoak dardaran! Horien formatzeko ikastaldiak antolatu zituen Andiazabalek Uztaritzen. *Meza hizlariak* deitu zituzten irakurleak.

1984tik honat Euskal Herri osoarentzat Loiolan antolatu Gogoeta Astearen sortzaille eta animatzaileetarik izan zen ere, bai eta 1990tik 2011ra arte Euskal Telebistako mezen arduradun, Iparraldetik zirelarik.

*Lapurdi Irratia* sortu zelarik 1992an, aste guziez bere gain hartu zuen kronika baten segurtatzea. Artikulu ainitz idatzi du ere bereziki *Herria* astekarian. Apezpikuen gutunen itzulpenak bestalde.

Elizako mundutik kanpo ere ari izan da. 1963ko azarotik 1964ko uztaile radino, Euskal Idazkaritzako bulegoan Iparraldeko lau gizon (Pierre Andiazabal, Jean Hiriart Urruty, Roger Idiart apezak eta Jean Louis Davant) eta Hegoaldeko beste lau (Solaun, Eneko Irigarai, Telesforo de Monzón eta Txillardeggi) bildu ziren azken honen gidaritzapean, 1964an Arantzazuko biltzarrak hartuko zituen erabakiak lantzen, euskara batuari buruz. Piarresen ez zuen bilkura bat huts egiten.

Ez da harritzekorik Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu bazuen. Baina, gure elizkizunen ospeak hainbeste zor diolarik, Txinako sukarra dela eta, Piarresen ehorzketetan hamabost bat adiskide baizik ez da bildu ahal izan. Bere biziaren araberako ehorzketa isilak: idatzi dituen liburuetan ez duzue haren izenik ikusiko. *Associated Press* Ameriketako agentziak erran duenaz, aingeruen ostea handiagoa baizik ez da izan Zeruetako ongiatorrian.